

HAUSNARKETA-SAIOA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI BURUZ

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

Nafarroako Berdintasunerako Institutua
Instituto Navarro para la Igualdad

Aurkezlea:

Mertxe Leránoz Goñi

Nafarroako Berdintasunerako
Institutuko Zuzendari
Kudeatzailea

Hizlaria:

**Ana de Miguel
Álvarez**

INDARKERIA SINBOLIKOA: IKASKUNTZA ETA BARNERATZE PROZESUA EMAKUME GAZTEENGAN

Formalki berdintasunezkoak diren jendarteetan bizi garen arren, non jende gehienak dioten berdintasunaren balioaren alde dagoela, desberdinkeriak erreproduzitu eta onartzeko molde berriak agertu dira gazteen artean, askatasun sexualekin ere zerikusia dutenak. Batetik, hautu librearen teoria dugu: emakumeak jada libreak direnez, badute berdintasuna, badute beren gorputzarekin zer egin edo zer ez egin aukeratzea. Baina, bestetik, harreman bat onargarria da soil-soilik tartean sexu "baimendua" baldin badago. Horren ondorioz, neska gazteek hautematen duten berdintasunak berriz ere berekin dakar sexu patriarkalaren desirak asebetetzea, haien aurka indarkeria erabiltzeko modu horiek hautemanezin bihurtzen direlarik.

Ana de Miguel-ek mozorroa kentzen dio hautu librearen erretorikari eta ikusgarri egiten ditu emakume eta gizonen erabakiak jaiotzetik beretik baldintzatzen dituzten mekanismo estruktural eta ideologikoak.

Ana de Miguel Álvarez, Filosofian doktorea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, eta Teoria Feministaren Historiaren ikastaroko zuzendaria, Unibertsitate Konplutentseko Ikerlan Feministen Institutuan. Aldizkari-artikulu eta liburu-kapitulu ugariaren egilea da, baita zenbait argitalpenena ere, jendarteetan sexu-desberdinkeria nola erreproduzitzen den ulertzeko gakoak bilatzea helburu dutenak.

2016ko maiatzaren 13a
CIVICAN, Pio XII.aren
etorbidea, 2 **IRUÑA**

12:00-14:00.

Izena emateko:

<http://goo.gl/forms/nooTIKx444>

Azken eguna: 2016ko maiatzaren 12a